

EGIN

★ ASTIGARRAGA

Sagardo festa gaur frontoian

- Afarian parte hartzen duten 350 pertsonak emango dute puntuazioa.
- Aurtengo zortzigarren edizioa da eta 32 sagardotegi aurkeztuko dira.

Urtariletik aurrera Astigarraga eta inguruko herriak izan ohi dira dunderik gabe sagardoaren hiriburua eta motorrak berotzen joateko gaur sagardo lehiaketa bat burutuko da bertako frontoian. Lehiaketak leku askotan egiten bada dira ere, badu honek berezitasun bat, afarian parte hartzen dutenek aukeratzen bait dute sagardo onena emandako puntuazioen arauera.

X. ARAMENDI

Dagoeneko badira zortzi urte lehiaketa hau burutzen dela eta urtez urte arrakasta handia izan du. Aurtengoan hiru sagardotegi gehiago izango dira udal frontoian, guztira 32, honakoak izanik: Adunako Aburuza, Aginagako Urdaira, Andoaingo Gaztañaga, Asteasuko Sarasola eta Azpeitiko Añota; Astigarragakoak hamahiru izango dira: Astarbe, Bereziartua, Etxeberria, Garzategi, Gurutzeta, Irigoien, Larrarte, Lizeaga, Mendizabal, Oiarbide, Petritegi, Rezola eta Sarasola. Hernanikoak, berriz, beste bost agertuko dira: Altxueta, Eizmendi, Elorrabi, Iparragirre eta Otzuta. Oleretakoak, Aulia eta Egiluze, Tolosako Amondarain eta Isastegi, Urnietako Eula, Oianume eta Urruzola, Zubietako Astiazaran eta Zizurkilgo Satxota.

Sagardotegi guzti hauek gainera beraien arteko lehiaketa ere egingo dute, sagardo onena aukeratzeko. Bi lehiaketa paralelo burutuko dira gaurkoan ere eta esan beharra dago azken urteotan



Urtez urte arrakasta handia izan du sagardo afariak.

Edorta SEGUES

behintzat sari berdina ematen dituztela bi "epaimahaiek". Honela, sagardozaleek sagardogileek adina ulertzen dutela argi geratzen da edo ahasabaia eta ez-tarria antzekoa dutela behintzat.

500 lagun

Joxe Mari Olaziregi, antolatzaile-tariko batek dioenez, gero eta emakume gehiago animatzen da, «asko dakitenak gainera». 350 pertsona izango dira nahiko sagardo edan ondoren beren puntuazioa emango dutenak. Hauxe gain, sagardogileak eta beste hainbat pertsona egongo dira, guztira frontoian 500 lagun bilduz.

Sagardozale hauek deia arratsaldeko 6etan egingo zaie Zaldi-

biako trikitilarien eskutik eta sagardo jaia Irungo txalapartariak, Lizaso eta Lazkano bertsolariak eta Altxako Itxaropena otxo-teren emanaldiekin osatuko da.

Aurtén ere Gure Izarra, Zipotza eta Astigar elkarteek antolatuko dute sagardo festa hau sagardogile bakoitzak ehun botaila aurkeztu beharko ditu. Afarian parte hartzen dutenei hiru minutuero botaila berri bat aterako zaie eta hauei banan banan beren puntuazioa apuntatzen joango dira orritxo batetan, sei lagunek osaturiko talde batek puntuak bilduko dituelarik. Esan beharra dago botailak prezintaturik egongo direla bezperatik, eta beraz, parte hartzaileek ezin izango dute zein sagardotegieta-koak diren jakin.

Gaurko janari kopurua ez da makala izango: 160 kilo makailu, 200 kilo kostila, 65 kilo txorizo, 35 kilo gazta eta guztientzat tarta azkenik.

Afaria honoko izango da 3.500 pezetaren truke: sagardoz egositako txorizoa, makailua tomatearekin, kostila erreka, gazta, tarta eta kafea. Hori bai, lehiaketa honen baldintza da sagardoaren lehiaketa postrera iristerako ematea, ahozapaia aldatu egiten bait da gozoa jan ondoren.

Azkenik, esan gaurkoan ere hainbat pertsona afari honetan parte hartu gabe geldituko dela urtero kalean kartelak jarri aurretik txartelak salduta egoten bait dira.